



Umeak ere kulturazale



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Umeak ere kulturazale _

Umeen eta kulturaren arteko erlazioaren inguruan: nola jardun

1_ Aurkezpena _3

2_ Marko orokorra _4

- 2.1. Umezaroa fenomeno soziologikoa ere bada _5
 - 2.1.1 Ikuspegi tradizionala: umeak, kontu egin beharrekoak _5
 - 2.1.2 Ikuspegi berriak: umeak ere parte hartzaile _6
- 2.2. Umeak eta bazterketa soziala _6
- 2.3. Umeen eskubideak eta eskubide kulturalak _13

3_ Umeak ere kulturazale _18

- 3.1. Familiatik begiratuta _19
- 3.2. Eskolatik begiratuta _20
- 3.3. Labur esanda _21

4_ Kasuak aztertzea: umeen eta kulturaren inguruko estrategiak _22

- 4.1. Kulturaren posizioa umeen inguruko planetan _22
- 4.2. Kulturatik umeentzako lantzen diren estrategiak gaur egun _23

5_ Umeak eta kultura: nondik ekin _26

_ Eranskina _28

1 _ Aurkezpena

Txosten hau Kulturaren Euskal Behatokiaren 2016ko “Kulturaren eta pobrezia-aren arteko erlazioaren inguruan” ikerlanaren ildotik dator, beste pauso bat aurrera egiteko¹.

Kasu honetan, umeen eta kulturaren arteko erlazioa aztertu du ikerlanak, umeak gizartean arriskua duten kolektiboa direla aintzat hartuta. Desoreka sozialak familia bakoitzeko errealitatean errotzen dira. Alegia, familiek ematen dizkiete umei abiapuntua eta baliabideak, bakoitzak berea eta ezberdina. Hori dela-eta, umeek kulturaren daukaten parte-hartzea ere ezberdina da.

Egundoko garrantzia dauka, hortaz, umei bultzada emateak kulturako publiko izateko. Etorkizuneko publiko izango direnez, haien kulturako gaitasuna eta gustuak pizteko balio behar du kulturak, horrek emaitza ekitatiboak ekartzeko moduan. Horretarako, gogoetarako elementuak eta ekintzarako gakoak eman ditu ikerlanak.

Hasteko eta behin, hiru ikuspegi biltzen dituen marko orokorra bistaratu du:

- _1.** Lehenik, umeak fenomeno soziologikotzat hartzea, umezaroari buruzko kontzepzio sozial berriak nabarmentzeko.
- _2.** Familien/umeen arteko desoreka eragiten duten faktoreak, Euskadiko datuak hartuta.
- _3.** Umeen eskubideak, eskubide kulturalekin zertan topo egiten duten behatuz.

Bigarrenik, eta aurreneko atalean esandakoaren ildotik, gogoeta egiten du umeak ere publiko izan daitezkeela ulertzeko moduan.

Azkenik, egoeraren erradiografia laburra ikusteko aldera, alde batetik, umeek kulturaren arloan zer presentzia daukan aztertu du txostenak (2018-2022 epeko Euskadiko Familiei laguntzeko erakunde arteko IV. Planean zer presentzia duten, bereziki) eta, bestetik, umeentzako planetan kulturak zer-nolako posizioa daukan.

¹ Hemen dago ikerlana eskura: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_kultur_pobrezia_2016/eu_def/adjuntos/Kulturaren_eta_pobrezia-aren_arteko_erlazioaren_inguruan_2016.pdf

2 Marko orokorra

Giza sozietateen bereizgarri unibertsala da umezaroa, bai etapa biologikoa delako bai biztanleriaren egiturako kategoria soziala delako. Baina multzo horren inguruko arau, espero eta usteak aldatu egin dira historiaz historia zein kulturaz kultura.

Bi ikuspegi desberdin aztertuko dira atal honetan, denboran eta historiaren nahiz kontzeptuan izandako eboluzioa ikusi eta, hartara, umezaroa gure gizartean nola kontzeptualizatzen dugun zehazteko.

Lan honetarako ez dauka interesik umezaroa zer den eta zer ez den argituko duen definizio zehatzen bila ibiltzeak, are gutxiago adinez adineko erreferentziak behartzen jarduteak, kategoria hori gure interesen arabera aldakorra denez gero. Arrazoi operatiboak direla-eta, ikerlanak egiteko gehienetan premia izaten dute argi definitzeko zein sartu behar den eta zein ez kategoriaren barruan, muga zehatzak ezarri nerabezaroarekiko, berez muga hori lausoa da-eta. Hain zuzen, 10 eta 14 urteren tartean trantsizioko zerranda bat identifikatzen dugu (“young adolescents” esaten zaiona), askotan umezaroan eta besteetan nerabezaroan erdi-ezkutuan gertatzen dena, eta horrek adierazten du zaila dela fenomeno hori adinaren arabera mugatzea (bizitzako zikloko gainerako trantsizio eta etapetan bezalaxe, denak ere ezaugarri biologikoei lotutako dimentsio soziala baitaude).

Txostenaren helburua betetzeko aldera, fenomeno honen kontzeptua lantzea lagungarri izango da -definizio operatiboa baino gehiago- umeen eta kulturaren arteko erlazioa nola eraiki jakiteko ulermena eta gogoeta bultzatzeko, politika kulturala bera eta kulturako publiko izateko garapena izango dutela aintzat hartuta.

Haurrentzako Nazio Batuen Funtsak (UNICEF) -ume guztien eskubideen alde jarduten den nazioarteko erakunde zentralak- dioenez, umezaroa definitzeko, adierazpenik esanguratsuena jende gehienak uste duen horixe da, alegia, helduarotik aparteko espazioa dela eta izaera propioa duela. Horrek barruti bat markatzen badu ere, umezaroaren inguruan gizarteak uste duena osatu egingo dugu hurrengo orrietan, eta azkeneko hamarkadetan izan diren aldaketek ere jardungo gara.

2.1 Umezaroa fenomeno soziologikoa ere bada

Lehen ere esan dugu irizpide biologikoak ez direla umezaroaren bereizgarri bakarrak, irizpide soziologikoak ere badira, berdin-berdin. Bizitzako zikloko etapa honek bereizgarri sozial espezifikoak izaten ditu.

Fenomeno soziologiko izanda, eraikuntza historiko eta sozialetarako gaia izaten da umezaroa, eta inguruko aldaketen nahiz testuinguruaren arabera moldatzen da. Gaur egungo gizartean, umezaroa ez da industrializazio-aurreko gizarteetan edo duela hamarkada gutxi batzuk izan zena; alegia, umea zer den daukagun ustea aldatu egiten dan garaian-garaian eta egitura sozial berriak sortu ahala.

Duela gutxi hasi dira umezaroa ikerketa soziologikotan lantzen, eta erdizka gainera. Neurri batean, lehengo uste sozialengatik; etapa hori ez zelako jotzen bere horretan subjektu edo aktoretzat.

Hala, azkeneko hamarkadetan hasi dira bereizten ikuspegi tradizionala eta gaur egungo ikuspegia, baina biak ere continuum beraren bi muturrak dira: batean, objektu pasiboa da umezaroa (ikuspegi tradizionalan) eta bestean, berriz, eragile sozial aktiboa (ikuspegi berrian).

Umezaroa zer den...



2.1.1. Ikuspegi tradizionala: umeak, kontu egin beharrekoak

Ikuspegi tradizionalaren arabera, gizakiaren sozializazioko garai funtsezkoa da umezaroa. Pertsona izangaiak dira umeak, eta izateko prozesu horretan, helduak adituaren papera jokatzen du, umeari jendartean sartzen laguntzeko, irakasteko: umea izaki moldagarria da, hortaz. Menderapeneko erlazioa sortzen da bien artean, norabide bakarrekoa, helduagandik umearengana.

Hori horrela izanda, umearen balioa ez da gaur egunean mamitzen, etorkizunean baizik. Hala, umeek balioa izango diren horretan dutenez, eta ez dagoeneko badiren honetan, umezaroa batez ere helduaroarekin kontraposizioan jarrita definitzen du ikuspegi honek. Helduaroak gorentasun kognitiboa dakar, autonomia, independentzia, nor bere bizi-proiektua eraikitzea...; aldiz, ezak definitzen du umezaroa, helduara iristeko oraindik falta denak. Proiektua da umea.

Helduek identifikatzen dituztenez umeen premiak, ez haiek berek, familia eta eskola nagusitu egiten dira, bai gizarteratzeko garaian bai laguntzeko garaian ere. Umeak etxean eta eskolan besterik ez dira.

Ikuspegi honetatik, umeen premiei kasu egiten badiete ere (eta ez badira ere, garai batean bezala, heldutzat hartzen), funtsean politika publikoen papera kontrola eta babesa ematea da, huts-hutsik. Hala, aurrerapena izan da umeen premiak aintzat hartzea eta horren inguruan legeak ezartzea; baina aurrerapen kaskarra da. Kaskarra da umeak babestu beharreko jotzen direlako, baina ez eskakizunak dituen kolektibotzat, bere kontuetan parte hartu eta erabakitzeke eskubidea eta gaitasuna dutela.

2.1.2. Ikuspegi berriak: umeak ere parte hartzaile

Ildo honetatik dator, hain justu, aurreko ikuspegiarekiko aldaketa: umeak eragile sozial dira, ez zaindu eta babestu beharreko izakiak.

Kasu honetan, sozializazio-prozesua ez da norabide bakarrekoa izango, aldiz, bi norabidekoa izan behar du, neska-mutilak ingurua eraldatzeko edo eragiteko gai direla jotzen baita. Prozesu honetan, helduak solidarioa izan behar du, eta hurbila; umeak inguruko egoerez zer uste edo pentsatzen duen jakin behar du.

Umeen gaitasunak aitortuta, eskubide propioa duen subjektu bihurtzen dira umeak, eta gizartean izan behar duten paper aktiboak indarra hartzen du. Umeak hiritarrak dira.

Horren arabera, helburua ez da egoera kaskarrenetan bakarrik eragitea baizik umezaro osoan (adinaren arabera, klase sozialaren arabera, jatorriaren arabera, generoaren arabera... gerta litezkeen "umezaro" desberdinak kontuan hartuta). Gainera, umei ere erabateko herritartasuna aitortzeak ez du esan nahi alde batera lagako denik begi-bistakoa dugun errealitatea: umeek helduen premia dute. Kontua da beste era batera landu behar dela ume eta helduen arteko harremana. Lehen esanda bezala: lagun egin behar zaie, hurbil egon eta hezi, umearen ahotsa entzunez, baina kritika egiteari uko egin gabe, errespetuzko dialogoan oinarrituta. Bakoitzairen gaitasunen arabera parte hartzeko dituzten eskubideak aitortu behar zaizkie, herritartasuna eraikitzeko ekintza indibidualak izan behar baitu prozesuaren aurreko urratsak, baina besteekin lotuta ezinbestean, beste umeak eta helduak alboan direla.

Umeek parte hartzeko ibilbide horrek ezinbestean ekarriko du alde batera uztea umeen premien bozeramaile jarduten den heldu adituaren ikuspegia, eta horren orde z neska-mutilen iritzia ere kontuan hartuko duen beste ikuspegi bat agertzea; ulertu behar denez umeek ere badutela iritzirik eta horiek ere balekoak direla, eta erabakiko diren ekintzak justifikatuak izango badira, zilegitasun handiagoa eman behar zaie iritzi horiei, justuago eta sendoago izateko.

Hala bada, ikuspegi berri honetatik begiratuta, aldaketa horrek orokorra izan behar du, pribatua nahiz publikoa:

- Premiak ez ezik, eskubideak ere aintzat hartu.
- Umeak tartean diren kontuak erabakitzeotan, beraien ahotsa ere aintzat hartu.
- Umezaroko egoera denak aintzat hartu, ez kaltekorrenak bakarrik.

Ikuspegi berri horri esker, umea subjektu propio bihurtzen denez, politika publikoek umeentzako plan espezifikoak landu behar dituzte, familiako planak ez ezik. Familientzako planak eta umeentzako planak kontu askotan topo egingo duten arren, ez dira gauza bera: umezaroako esparrua zabalagoa da, urrunago doa familiaren esparrua baino.

Umea bizitza soziala antolatzeko oinarritzko erakundean txertatuta dago, familian (eta askotan eragile giltzarria izaten da umearekiko erlazioan), baina halere ezin diogu umea subjektu independentetzat hartzeari utzi: eskubide eta guztikoa da eta ardurak ditu familiarekiko, eskolarekiko eta bere inguruarekiko edo hiriarekiko.

2.2 Umeak eta bazterketa soziala

Umezaroaz pentsatzeko marko kontzeptuala definitu ondoren, umeentzako egoera kaltegarriak sortzen dituzten faktore sozial zehatzak landuko ditugu atal honetan.

Pisu itzela du kontu honek ikusleak, publikoa, garatzearen ikuspegitik. Helduek kulturaren parte hartzeko duten moduan, parekotasun-eza agertzen da han-hemen. Parekotasunik gabeko kultura hartzeko era hori, ordea, umezaroan pizten da, familiak herentzian ematen duenagatik eta umeengan eragin handia daukatelako jatorriko familiako baliabide materialek eta sinbolikoek.

Hain zuzen, kontua ez baita pobreziaren eta bazterketa sozialaren erradiografia egitea, baizik eta parekotasun-ez hori egon badagoela agerian jartzea, zerk faktorek eragiten duten erakustea eta kultura-baliabideak bereganatzeko garaian desberdintasunak zergatik gertatzen diren azaltzea.

Hala, hauxe planteatzen da:

1. Azterketa kontzeptuala egitea, parekotasun-ezaren iturriak edo faktoreak zein diren ulertzen laguntzeko.
2. Bigarren mailako datuen bidez errealtatearen karakterizazioa marraztea, gizarteko egoera kaltekor horiek izan, badirela, agerian jartzeko, faktore batzuen eta besteen bitartez.

Azterketa kontzeptuala

Hasiera-hasieratik, umeak familiaren egoera soziala heredatzen du. Hala, umezaroa, umeen bizi-espazioa, alegia, egitura, prozesu eta erakunde sozialen men dago. Helduei eragiten dieten indar politiko, sozial eta ekonomiko berberak eragiten diete umei ere, are nabarmenago.

Horregatik ba, indarra hartzen du berriz ere umei parte hartzeko eskubidea aitortzen dien enfoke berriak, neska-mutilak beren errealtatea ezagutzeko eta eraldatzeko moduko eragile sozialtzat jotzen dituelako.

Gizarteko aldaketa handiek badute eragina umeengan ere. Adibidez, industrializazioaren ondoren, esparru pribatua eta esparru publikoa banantzeak, umeak etxean mugatuta laga zituen; eta inguru pribatuan/familian babestu beharreko objektutzat jotzen zituen ikuspegi tradizionala nagusitu zen. Baita ere, eskolaratze publikoa indartu denez geroztik, ikuspegi pedagogiko tradizionaletatik begiratuta indartu egin da umeak pertsona-egitasmo moldagarri eta subjektu pasibotzat hartzen dituen kontzeptzioa bera.

Edonola ere, gaur egun familia-esparruan lantzen dira, batik bat, umeen egoera kaltegarrien edo bazterketa sozialen kontra borrokan egiteko politikak.

Hainbat ardatzen intersekzioek eragiten dituzte familien/helduen bidez umezaroan mamitzen diren errealtate sozial bereziak, bai eta baliabideak (baita kulturakoak ere) eskuratzeko desorekak ere. Ardatz horiek, eskuragaitasunaren parekotasun-ez hori, arrazoi hauengatik gertatzen dira batez ere:

_Klase soziala: SKontzeptualizazio desberdinak egin badaitezke ere, klase sozial batekoa edo bestekoa izateak badu eraginik existentziako baldintza materialekin eta bizi-estilo jakinekin. Gizartea estratifikatzen edo egituratzen duten elementu nagusiez beste (lan-merkatuko kokapenez eta kapital ekonomikoaz aparte), familiaren kapital kulturalak (hezkuntza-maila ere barruan sartuta) eta kapital sozialak nabarmen markatzen dituzte kulturazko ohiturak. Hala, familiek seme-alabei eskaintzeko zenbat baliabide (ekonomiko, kultural, sozial) dituzten erakusten du desoreka-ardatz honek.

_Generoa: Generoko parekotasun-ezak ere egoera kaltegarriak eragiten dizkie umei, batez ere, gehienetan emakumeak izaten direlako lan-prekaritatea pairatzen dutenak. Pobreziaren profila emakumezkoena da batik bat, eta guraso bakar direnak emakume izaten dira gehienak. Guraso bakarreko gero eta familia gehiago dagoenez, bereziki erreparatu behar zaio gertakari horri, umei begira nagusiki.

_Jatorri etnikoa: Naziotasunaren arabera neurtzen den jatorri etnikoa, atzerritarrak eta bertan jaiotakoak bereizten dituen, desoreka sozialen eragile oparoa da. Bazterketa sozialak gehiagotan jotzen ditu familia etorkinak: diruz pobre izaten dira, edo nekez lortzen dute gizartean parte hartzea. Familia etorkinetako seme-alabek, hortaz, zailtasun gehiago dute hasiera-hasieratik, bertako familiek baino.

Faktore horien eta horiekin lotutako elementuen arteko konfigurazio ezberdinen ondorioz, umeek ere ez dute aukera-berdintasunik. Horren inguruan joera bat baino gehiago daude identifikatuta, hona:

_Lan-merkatuaren eboluzioa eta lan-prekarietatea: 70eko hamarkadan sistema ekonomikoaren fase berri bati ekin genion, kapitalismo arautu-eztakoa nagusitu zen eta lan-merkatuan aldaketak eragiten hasi zen. Garai batean, gizon denek lan egin behar zutela arau nagusia zenez, familia-eredu zehatz bat nagusitu zen (familia nuklearra), horretan oinarrituta eta indartuta. Baina, gerora, lan-merkatuan izandako aldaketak zirela-eta, familien egiturak ere aldatu egin ziren. Puntu honetan, bereziki interesgarria dugu lan-merkatuan izandako aldaketak nabarmentzea: lotura-modu malguagoak, lanaldi partzialeko lan gehiago eta aldi bateko lan gehiago ekarri zuten, egiturazko langabezia mordoa eta segmentutan banatutako lan-merkatua, zeinetan beheko segmentua prekaritate handikoa den (duela gutxi, zeresan handia izan du langile pobreen kontuak, alegia, badela jendea lana edukiagatik ere, ezintasun materialak eta gabezia handiak dituen).

_Familia-modu berriak eta guraso bakarreko familia gero eta gehiago: Familiek izandako aldaketa handienetako bat zera izan da: lehen hornitzaile bakar bat (betidanik, gizona) nahikoa zuen familiatik bi hornitzaileko familiara pasatzeko premia. Horrek denbora kendu die emakumeei guraso izateko, baina laneko karga handiagoa ere ekarri die, lanaren banaketa soziala dela-eta, guraso izateko lan handiagoa agintzen baitie gizarteak emakumeei. Familia modu berriak ere agertu dira, adibidez, guraso bakarreko familiak edo genero eta sexu identitate berrien ondorioz sortutako bestelako familiak. Gero eta normalagoak diren arren modu berri hauek, oraindik ere zaila dute batzuetan gizarteak onartzea. Alegia, familia nuklear monogamoa oraindik nagusi bada ere, bestelako familiak ere gero eta gehiago dira.

_Biztanleria gero eta zaharrago, eta aurrekontu publikoetako partidak: Ikerketa soziala orain ari da konturatzen biztanleria-piramide desorekatuak baduela inpakturik politikan, gero eta edadetu gehiago daudelako eta gero eta luzeago bizi direlako. Horrek esan nahi du baliabide publikoak beste era batera banatu behar direla, biztanle multzo handi baten premiei ondo erantzungo bazaie, gero eta urriago den beste multzo baten kaltetan bada ere, alegia, umeen kaltetan. Gero eta gehiago izanda eta gero eta luzeago bizi izanda, edadetupei pentsioen bidez eta osasun-sistemaren bidez laguntza ekonomikoa eta sanitarioa ematea oztopo da umeentzako programak sortzeko.

Zailtasun horiek ikusita, are gehiago nagusitu da umeak ondo egotea familien erantzukizun pribatua dela dioen ikuspegia. Nolanahi, umezaroa estu lotuta dago gizartearekin etorkizunarekin, eta, hortaz, erantzukizun publikoa ukazina da.

Hala, faktore sozial “zaharren” (errotutako garrantzia dutenen) eta “berrien” (jarrera berrien ondoriozkoen) arteko konbinazioa osatu da. Faktore tradizionalek ongizatearen estatuak inspiratu zituzten oinarriko programa haietan aurkitzen dute behar duten erantzuna, lana, era batera edo bestera, oinarri hartuta. Alegia, errealitatea bitan banatuta: okupazioa batetik, eta lan-merkatutik kanpora gertatzen dena, bestetik (osasuna, adina eta langabezia). Langabeziako prestazioak, erretiroko prestazioak eta osasun-sistemekin lotuta dago ikuspegi tradizionala.


Faktore berriak, aldiz, lan-merkatuak izan dituen aldaketekin daude lotuta, familia forma berriekekin eta aldaketa demografikoarekin. Horiek guztiak batuta, aldi baterako lanak eta lan partzialak eta laneko ezegonkortasunak gora egin dute, eros-ahalmena galdu da, gero eta guraso bakarreko familia gehiago daude, eta horietako bakoitzari orain artekoa ez bezalako erantzuna eman behar die politika publikoek.

Fenomenoaren kuantifikazioa

Aurrez esan duguna kontuan hartuta, fenomeno hau kuantifikatzeko, eskura diren datu sekundarioen bidez egin daitekeenaren barruan, bada horretan lagungarri izan daitekeen familien eta umeen karakterizazioa bat, klase, familia modu eta jatorri etnikoen inguruko faktoreen aspektuak biltzen dituzten aldagaien araberakoa.

Lehenik eta behin, datu garrantzitsu horietako bat biztanleria zahartzearekin lotuta dago. Grafikoak erakusten du, batetik, jaiotza-tasa baxua denez eta, bestetik, jendea luzeago bizi denez, azkeneko 3 hamarkadetan joera aldatu egin dela eta, gaur egun, 15 urtetik beherakoen proportzioa baxuagoa dela 65 urtetik gorakoen proportzioa baino.

1. grafikoa. 15 urtetik beherako biztanleen eta 65 urtetik gorako biztanleen proportzioa Euskadin eta Espainian (%)




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (www.ine.es)

Horrek erakusten du baliabide gutxiago dagoela umeentzako. Ongizateko larrialdi gehienak familiek edo gizarte zibil antolatuen (hirugarren sektoreak) moldatzen dituzten arren, hirugarren adineko jendearentzat obligazio publiko gehiago dauzka definituta legeak, prestazioen edo zerbitzuen bidez, umeentzat baino. Hala, erretiroko pentsioak aurrekontuko partidaren zati handia dira, eta inoren premiagatiko mendekotasun-sistema programetan ere umeek presentzia oso kaskarra daukate edadetuaren aldean.

Europako estatistiketan “familia eta umezaroa” gisa sailkatuta dagoen gastu soziala (amatasun-garaiaren errenten diru-sarrerak, guraso-baimenak, ardurapean dauden seme-alaben asignazioa, haurra jaio osteko laguntzak eta bestelako diruzko prestazioak) askoz txikiagoa da “edadetuak” sailkapeneko gastua baino (era askotako pentsioak, etxean laguntzeko neurriak eta zaintza, eta egoitza/erresidentzia).

2. grafikoa. Onura sozialen ehunekoa, funtzioaren arabera (%)



Iturria: Eurostat. Oharrak: Etxebizitzenak 2005-2012: balio estimatua; 2014 eta 2015 urtean: behin-behineko balioak

Haurren eta Nerabeen Behatokiak 2016ko abenduan prestatutako ikerlan batek (EAEn haurren eta nerabeen errealtateari jarraipena emateko adierazle-sistema)² adierazten duenez, 2011n 12 urtetik beherako biztanleen % 62,2ak kulturarekin lotutako zerbitu egiten zuen astean behin, eta % 23,2k ez zuela inoiz edo ia inoiz irakurtzen liburu, aldizkari edo komikirik. Horren arabera, biztanle umeen segmentuko zati handi samar batek kontaktu eskasa dauka jardun kulturalarekin. Gainera, gogoan izan behar dugu kulturarekin kontaktua eduki, baduteneke, oso maila eta era ezberdinetakoa daukatela.

Hori dela-eta, kolektiboaren eta aurrekontuetan daukan partidaren ikusmira orokorra egin eta gero, orain ikusiko dugu Euskadin zer faktorek daukaten eraginik familien arteko desorekak sortzen.

2_ Hemen dago ikerlana eskura: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_observ_infancia/eu_publica/adjuntos/INFORMEINDICADORES_BILINGUE.pdf


Euskadiko pobrezia eta gizarte-desberdintasunei buruzko 2016ko inkestako datuak erabili ditugu³- zehazki, galdetegi horretan 2008-2016 epean bildutako datuak- bai eta 2014ko Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika ere, Gizarte Premiei buruzko Inkestaren esparruan. Familien (adin txikiko seme-alabak badituzten edo ez dituzten familien) eta helduen egoera xehatzen du txostenak.

Desberdintasuna eragiten duten faktore sozial horien pisua aztertzen du, “mantenu-pobrezia” esaten zaion neurriaren bitartez. Zehazki, txostenak ematen duen definizioaren arabera: *“Mantenu-pobrezia baliabide ekonomikoen eskasia-egoerarekin loturik dago; hain zuzen ere, oinarrizko premiak (bereziki elikaduraren, etxebizitzaren, jantzien eta oinetakoen gastuekin loturikoak) zorrotz betetzeko adina baliabide ez izatearekin. Pobrezia-arriskuan daude honako hauek: aintzat hartutako erreferentzian, oinarrizko premiei aurre egiteko ezarritako atalaseen azpiko diru-sarrerak dituzten pertsona, familia edo etxeokoen unitateak”*.

Beste neurri batzuek bestelako dimentsio batzuk ateratzen dituzte argitara, baina kasu honetan, neurri hau bera gauza da erakusteko faktore horiek zenbateko indarra daukaten familien arteko desberdintasunak sortzeko.

Hona emaitzak grafikoen bidez adierazita:


3. grafikoa. Mantenu-pobrezia adinaren arabera 2008-2016 (%)



Iturria: Pobrezia eta gizarte-desberdintasunei buruzko 2016ko inkestaren txostena

> Banaketari dagokionez, **pobrezia ugariagoa da umeetan helduetan baino**; pobrezia-tasak bikoitza dira umeak bizi diren etxeetan, umerik bizi ez den etxeen aldean, eta aldea dago 14 urtetik beherakoen edo gorakoen artean ere.

4. grafikoa. Mantenu-pobrezia familiaren osaeraren arabera (%)




Iturria: Pobrezia eta gizarte-desberdintasunei buruzko 2016ko inkestaren txostena

> Familien osaerari dagokionez, **guraso bakarreko familiak arrisku handiagoa dute**, aurre egin beharreko zailtasun gehiago izaten dute-eta.

3_ Hemen dago ikerlana eskura: http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe_epds_2016_2/eu_epds2012/adjuntos/2016ko%20PGEI-ren%20emaitzen%20txostena%20.pdf


5. grafikoa. Mantenu-pobrezia hornitzaile nagusiaren generoaren arabera (%)



Iturria: Pobrezia eta gizarte-desberdintasunei buruzko 2016ko inkestaren txostena

> Generoak ere badaukanez zeresanik desberdintasunarekin, **hornitzaile nagusia emakumezkoa duten familietan, mantenu-pobrezia eragina doblea da.**

6. grafikoa. Mantenu-pobrezia hornitzaile nagusiaren adinaren arabera (%)



Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2016ko inkestaren txostena

> Halaber, **familia gazteetan gehiago eragiten du mantenu-pobrezia**, hortaz, adinak ere badu zeresanik desberdintasunean.


7. grafikoa. Mantenu-pobrezia jatorriaren arabera (%)



Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2016ko inkestaren txostena

> Jatorri etnikoari dagokionez, datuek argi eta garbi erakusten dute **mantenu-pobrezia askoz gehiago jasaten dutela biztanle atzeritarrek.**


8. grafikoa. Mantenu-pobrezia ikasketen arabera (%)



Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2016ko inkestaren txostena

> Desberdintasunean faktore sozioekonomiko esanguratsuak dira ikasketak. Ikasketak aztertuta, ikusten da **pobrezia askoz gehiago eragiten diela ikasketa kualifikatuak ez dituztenei.**

9. grafikoa. Mantenu-pobrezia, etxeko lan-egoeraren arabera (%)



Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2016ko inkestaren txostena

> Azkenik, langabezia eta prekaritatea (lan egonkorrik ez izatea) ere estu loturik daude mantenu-pobreziarekin.

Grafikoetan atzemandako ezberdintasunen arabera, argi dago honako hauek arriskurako faktoreak direla:

- _1. Hornitzaileak langabezian edo egoera ezegonkorrean dituzten familiak
- _2. Guraso bakarreko familiak
- _3. Atzerriko jatorriko familiak
- _4. Hornitzaile nagusia emakumezkoa duten familiak
- _5. Ikasketa maila baxua duten familiak
- _6. Familia gazteak (35 urtetik beherakoak)

Datu horiek mantenu-pobrezia eragiten dioten faktoreen efektuak erakusten dituzte, baina ez dira zuzenean eta zehatz kulturari buruz ari. Zuzeneko erlazio horren inguruan datuak falta dira. Testuinguru horretan, Umeen pobrezia Euskadin txostenak (2013)⁴ aukera ematen du, aisia kontzeptuaren bidez, ikusten hasteko faktore horiek zer erlazio duten kulturaren kontsumoarekin.

1. taula. Umeak edukitzearen efektua kulturari, gain-begirada (2012ko datuak)


	Familia-unitateak			
	14 urte baino gutxiagoko umerik EZ	14 urte baino gutxiagoko umerik BAI	14 urte baino gutxiagoko umerik BAI, eta senide aktibo guztiak lan egonkorrekin	14 urte baino gutxiagoko umerik BAI, eta senide aktibo guztiak lanik gabe edo luzaroan langabezian
Aisiako premiak ase gabe	11,9	15,6	6,2%	35,6%

Iturria: Umeen pobrezia Euskadin (2013)

4_ Hemen dago ikerlana eskura: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_observ_infancia/es_publica/adjuntos/La%20pobrezia%20infantil%20en%20Euskadi.pdf

Nolanahi ere, ikusita krisiak zenbateko inpaktua izan duen familien aurrekontuetan, ez da zaila aurreikusten, dinamika orokorrean dagoeneko nabarmentzen hasi bada ere (10. grafikoa, 580 euro gutxiago 2017an, 2006an baino) ziurrenik zailtasun ekonomiko larrienak dituzten familiek murriztuko zutela gehien kulturako gastua.

10. grafikoa. Euskadiko familiek aisian eta kulturaren egiten duten gastuaren bilakaera, 2006-2017 epean



Iturria: Familien gastuen estatistika-EFG (www.eustat.eus)

Familiako egoera edo umeen egoera desberdinak eragiten dituzten faktoreak zein diren erakusten dute datuok, zein diren kultura gehiago edo gutxiago eskuratzea eragiten dutenak. Kulturaren jardun-eremu propiotik aparte geratzen dira faktore horiek, herri-administrazioetako kultura-sailetatik aparte. Hainbat instrumentu biltzeko beste ikusmira zabala behar dugu desberdintasunak berdinduko baditugu: kalitatezko enplegua eduki behar da (bereziki emakumeek), kontziliazioa behar da, diru-sarrera ziurtatzeko sistemak, hezkuntza-politika inklusiboak, umeei kontu egiteko zerbitzuak..., eta ikusmira hori hain zabal izanik, kulturak bere rola eta bere helburu zehatzak zein diren jakin behar du.

2.3 Umeen eskubideak eta eskubide kulturalak

Marko orokorra ixteko, umeen alorrean eta kulturaren alorrean eskubideek zer garapen legal izan duten aztertuko dugu atal honetan, nazioarteko araudiari erreparatuta. Kontu hauetan zer dagoen eta zer esaten den kontuan hartu beharrekoa da jakiteko zenbateko aintzatespena eta irismena daukaten eskubideek esparru publikoan.

Umeen kasuan, legea emankorra da nazioarte mailan nahiz nazio mailan, eta eskubideak ere ugari dira. Kultura, ordea, oso gutxi eta lauso kontzeptualizatu da legezko testuetan, hainbat instrumentutan banatuta dago eta egoera ezberdina du herrialdez herrialde, eta ez dago apenas garapenik ez arau-zehaztapen komunik. Kulturaren kasuan ez bezala, umezaroaren inguruan badirenez nazioarteko itunak, errazagoa izan da umeen eskubideak legez errekonozitzea eta eskubideok berrestea hainbat herrialdetan. Hori dela-eta, arau asko garatu dira, umeen eskubideei mamia eta garrantzia eman dietenak.

Haurren kasuan, badaukagu Nazio Batuen Erakundearen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, baina, kulturaren kasuan, eskubide kulturalak kontzeptualizatzeko proposamena besterik ez dago: Eskubide Kulturalen Friburgoko Adierazpena. Halere, Giza eskubideen Adierazpenean bertan nahiz Espainiako Konstituzioan aipatu, aipatzen da kultura garrantzitsua dela, era batera edo bestera. Oso arau gutxi sortu dira, eta askotan erreferentziak besterik ez dira izan, anekdota hutsak, maiz, agintari publikoek ez dituztelako ganoraz taxutu.

Umeen eskubideak

1959 urtean onartu zuten Nazio Batuetan Haurren Eskubideen Adierazpena. Ginebrako adierazpenean Haurren Eskubideei buruz jasotakoan oinarrituta dago, eta 10 puntu biltzen ditu: 10 puntu horien oinarria zera da, umea babestu beharrekoa dela, neska-mutilak pertsona-proiektuak direla, eta horiek zaintzeko gunea nagusiki familia dela.

1989an, Nazio Batuek Haurren Eskubideen inguruan egin zuten konbentzioan, 1959ko adierazpenean zaintzeari buruz esandakoa errotu zuten, baina, horrez gain, 10 printzipio haiekin aurrera eginda, honako hauek ere planteatu zituzten:

- Botere publikoek tarteko izan behar dute.
- Era askotako eskubideak daude: zibilak, politikoak, sozialak eta ekonomikoak.
- Umeak ez dira babestu beharreko subjektu hutsak, eskubideak dituzten subjektuak ere badira.
- Alegia, trantsizioa gertatzen ari da, beren eskubideen subjektu pasibotzat hartzetik, subjektu aktibotzat hartzera, parte-hartze aktiboaren inguruko puntuak ere agertzen ari direla.

Hala, umezarorako politiken beste fase bati ekin zion Konbentzioak. Batzuek diote Konbentzioak 3 printzipio/eskubide nagusitan daukala erroa, eta horietatik hirugarrena da trantsizio berria markatzen duena:

— Hornitu. Oinarrizko ondasun eta zerbitzuak ematea, garapen biologiko, psikologiko eta sozial egokia izango dutela ziurtatzeko, hezkuntza kontuetan nahiz osasun kontuetan. Eta duela gutxitik, arriskuko egoerak edo gizarte-bazterkeria detektatu eta prebenitzeko baliabideak ematea (gero eta garrantzitsuagoa).

— Babestu. Umeentzako apropos txarrak izan daitezkeen jokabideetatik babes ematea, esate baterako, tratu txarrak, salerosketa edo esplotazioa.

— Parte hartu. Neska-mutilak subjektu aktibo direla erakusten duen ikuspegiaren alde egitea, umei ere gizartean parte hartzen uzteko ekintzak bultzatuz.

Ikuspegi kulturaletik begiratuta, oso interesgarria da detektatzea zein puntutan lotzen dituen Konbentzioak umeak eta kultura, eta bien arteko erlazioa. 31. artikulua, esate baterako, hauxe dio:

- 1. Estatu alderdiek aitortzen dute haurrek duten eskubidea, atsedenaldirako eta aisialdirako, euren adinaren arabera jolasetarako eta jolas-jardueretarako eta kultura-bizitzan eta arteetan askatasunez parte hartzeko.*
- 2. Estatu alderdiek errespetatu eta sustatuko dute haurrek duten eskubidea, oso-osoan parte hartzeko kultura- eta arte-bizitzan, eta aukera egokiak eskainiko dituzte, berdintasun-baldintzetan, kultura-, arte-, jolas- eta aisialdi-bizitzan parte hartzeko.*

Artikulu hori dela-eta, Haurren Eskubideen Batzordeak Ohar Orokor bat egin zuen 2013an (ohar zenbakia: 17)⁵. Ohar hori egiteko arrazoietako bat nabarmentzekotan, hauxe: estatuak oso aintza gutxi ematen diote artikulu horren edukari, eta, horrenbestez, oso arau gutxi taxutzen dira gai kontu horren inguruan, eta inbertsioak ere urriak dira. Horrez gain, neska-mutilen kategoria batzuek artikulu horretan jasotako eskubideak gauzatzeko dituzten zailtasunak ikusita kezkatuta daudela diote. Ohar horren bitartez, jendeak kontzientzia hartzea nahi lukete, eskubide horiek hobeto ulertzeko eta garrantzizko jotzeko. III. Kapituluari buruz ari dela, honakoa aitortzen du:

- 11. Inguruko jendarteko kulturaren parte hartzea garrantzitsua da umeek taldekoa izateko sentipena izateko. Familiako, inguruko eta gizarteko jardun kulturala eta artistikoa jasotzen dutenez umeek, prozesu horren bitartez hasten dira beren izana ezagutzen eta sendotzen, eta, aldi berean, kulturaren inguruko bizitza eta arte tradizionalak pizten eta iraunarazten dituzte.*
- 12. Gainera, umeak ere erreproduzitu, eraldatu, sortu eta transmititzen dute kultura, imajinariozko jolasen bidez, kantu, dantza, animazio, ipuin eta marrazkien bidez, bai eta antolatutako jokoen, kale-antzerkiaren, txotxongiloen eta festibalen bitartez ere, besteak beste. Lagun eta helduekin duten tratuaren bidez inguruko kultura eta artea ulertzen duten heinean, horiek zer diren berenganatu eta egokitzen*

5_ Hona ohar guztiak esteka honetan: <https://www.unicef.org/ecuador/UNICEF-ObservacionesGeneralesDelComiteDeLosDerechosDelNino-WEB.pdf>

dute, beren belaunaldiko esperientziaren arabera. Lagunekin dabiltzala, beren hizkuntza eta jokoak, mundu sekretuak, fantasiak eta bestelako jakintza kulturala sortzen eta transmititzen dute umeek. Umeen jolasek "umetako kultura" sortzen dute, eskolako eta ume-parkeetako jokoak ez ezik, kaleko jolasak (kanikak, korrika ibiltzea, kaleko artea etab.) ere bai, barne. Plataforma digitalak eta mundu birtualak erabiliz bestelako komunikazio-bideak eta sare sozialak sortzen ere puntakoak dira umeak, eta ez dugu ahaztu behar horien bitartez mamitzen direla kultur-inguru eta arte-forma desberdinak gaur egun. Ezinbestekoa da umeek ekintza kulturaletan eta artistikoetan parte hartzea, beren berezko kultura ez ezik, besteen kultura ere ulertuko badute, horrek aukera emango baitie ikusmira zabaltzeko eta bestelako tradizio kultural eta artistikoetatik ere edateko, hartara, batzuek bestea hobeto ulertzeko eta bestelakoa ere aintzat hartzeko.

IV. atalak, azterketa juridikoa egiten baitu, politika kulturalak zer-nolakoa behar lukeen marrazten du nolabait. Hauxe dio, zehazki, A sekzioko F puntuak, kulturari eta arteari buruz diharduela:

"Jendarte osotik sortua da kultura; inongo umerik ez daiteke utzi kultura sortzetik edo horren mesedeak jasotzetik aparte. Kultur-bizitza kulturatik eta jendartetik sortua da, ez dator kanpotik behartuta; estatuak bidea errazten jardun behar dute, ez hornitzen."

Oharra eskubideak behar bezala garatzeko zer baldintza bete behar diren aipatzen du, eta zer arazori egin beharko zaien aurre. Eskubideak garatzeko baldintzak, zehazki, hiru kategoriatan bil daitezke:

_Ongizate psikologikoari buruzko baldintzak, adibidez, estresik ez izatea, inposiziorik ez izatea, denbora librea edukitzea, behar bezalako atsedena izatea, eta ez jasatea indarkeria sozialik, aurreiritzik edo bazterkeriarik.

_Baldintza sozialak, adibidez, guraso, irakasle eta gizarteek umeen eskubideak errekonozitzea, eta umeek aukera izatea ondarea eta artea ulertzeko

eta ikertzeko, aukera izatea beren mundua eraldatu eta beren espazioa sortzeko beharrezko imajinazioa eta lengoia erabiltzeko eta beste ume batzuekin kalean jolasean ibiltzeko, heldurik gabe, inguru pizgarrietan.

_Inguruaren baldintzak, esate baterako, zirkulaziorik gabeko lekuak, kutsadurarik gabeak eta fisikoki arriskutsu ez direnak izatea, bai eta inguruko naturarekin eta animaliekin esperimintatu eta jolasteko aukera izatea ere.

Batzordeak, 17. oharrean, garatzeko detektatutako problemek ari dela, honako hauek nabarmendu ditu kulturari buruz:

_Umeek espazio publikoak erabiltzea zaila da: gero eta denda gehiago dagoenez leku publikoetan, gero eta zailagoa dute umeek leku horiek jolasteko, entretenitzeko edo ekintza kulturaletarako erabiltzea. Gainera, badirudi gero eta tolerantzia gutxiago dagoela umeek leku publikoak erabiltzeko, arau ugari dira zaratari buruz, egin daitezkeen jolasei buruz, arauak eta orduak daude leku horietan ibiltzeko... Leku batzuetan ia sartu ezinda egote horrek ez die uzten umei jabetzen eskubide eta guztiko hiritar direnik, eta, umeentzat jolasteko, entretenitzeko, kultura-ekintzetarako bestelako lekuak jartzeko premia eragiten du.

_Umeentzako inbertsio kulturalik ez da egiten: familiakoen laguntzarik ez dutelako, garrarioa edo sarrera garestia delako, kultura-eskaintza helduengan zentratuta dagoelako eta kultura-eskaintzatan umeak ez direlako aintzat hartzen.

_Garapen-programetan alde batera utzita dago Adierazpeneko 31. artikulua: Askoz arreta handiagoa ematen zaio haur eta umeak bizirik iraunarazteari (elikadura, hezkuntza, immunizazioa...) garapenerako baldintza egokiak jartzeari baino (jolasa, aisia, kultura eta arteak). Gainera, ezinbestekoa da programak aplikatu behar dituzten langileek behar bezalako gaitasuna izatea.



Aldaketa digitala: umeak gero eta gehiago jarduten dira kultura eta arteetako ekintzetan nahiz jolasean bitarteko elektronikoen bidez, dela pasiboan (telebista ikusi, irakurri, bideoak ikusi...) dela aktiboan (bideoak egin, argazkiak sortu, mezuak argitaratu...). Belaunaldi berrientzat, oraintxe inguru analogikotan eta oraintxe inguru digitaletan ibiltzea erabat naturala da. Denek aukera eta erraztasun bera behar dute, hortaz, Interneten edo sare sozialetan ibiltzeko. Halere, ezin dugu alde batera utzi, Batzordeak ere hala dio, halako bitartekoak erabiltzeak ere baduela arriskurik umeentzat: ziber-jazarpena, pornografia, indarkeria edo manipulazio psikologikoa. Hortaz aparte, gainera, kulturaren ikuspegi hertsia jasotzea ere gerta liteke, gure gizarte anitz hauetako hizkuntzak, balioak edo sormena jasotzen ez dituzten medioetan badabilta (telebistaz ari da, zehazki); pantaila behar duten ekintzekiko dependentsia sortzea, eta, ondorioz, loa aztoratzea, egonean gehiegi egotea eta horri lotutako bestelako trastorno batzuk jasatea.

Nazio Batuen Haurren Eskubideen Konbentzioaren 17. oharra, hortaz, zailtasunen eta aukeren diagnosis eginez, aukera paregabea ematen du ekintza nora bideratu jakiteko.

Eskubide kulturalak

Friburgoko Adierazpena (2007) eskubide kulturalen inguruan orain arte sortu den kontzeptualizazio-dokumentu mardulena da. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari kulturaren ikuspegia erantsi nahi dio, 22. artikuluan, pertsonen duintasunaz ari dela, eskubide “ekonomiko, sozial eta kulturalak” aipatzen dituenek. Gainera, 27. artikuluan, jendeak kulturaren nahieran parte-hartzeko eskubide daukela dio.

Horiek guztiak esanda ere, badirudi eskubide kulturalak bigarren mailako kategorian jartzen dituela. Friburgoko Adierazpena honela taxutu zen:

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta Kultura Aniztasunari buruz Unescok egindako Adierazpen Unibertsala aintzat hartuta.

- Kontuan hartuta eskubide kulturalak hainbat instrumentutan zatituta daudela, eta ez daudela begi-bistan eta ez direla aise ulertzen.
- Eskubide horiek beti premiazko direla aldarrikatuz, baita gizartean tentsioak eta gatazkak daudenean ere, indarkeria, gerra edo terrorismoagatik; eta kultura-aniztasuna indartzeko oso garrantzitsuak direla.

Labur esanda, eskubide kulturalak bederatzi taldetan zehaztu zituen Friburgoko Adierazpenak:

1. Bakoitzak bere kultura-identitatea hautatzea
2. Ondare kulturala baliatzea
3. Jendarte kulturalen batekoa izatea, ala ez izatea
4. Kultura-bizitza eskura izatea eta horretan parte hartzea
5. Bakoitza berak aukeratutako hizkuntzan jardutea
6. Egile-eskubideak izatea
7. Hezkuntza eta prestakuntza jasotzea
8. Informazioa jasotzea
9. Kulturaren politiken gobernantzan parte hartzea


Multzo horiei behatuta, begi-bistan geratu da pertsona subjektu aktibotzat jotzen duten bezainbat osagai daudela pertsona subjektu pasibotzat jotzen dutenak. Pertsona hala aktibotzat nola pasibotzat hartzeko joan-etorri hori berdin-berdin gertatzen da umeen esparruan zein kulturaren esparruan. Kulturaren kasuan, joan-etorriko mugimendu horrek kultura-politikan paradigma aldatzea eragin du: kulturaren eskurapenaren demokratizaziotik, demokrazia kulturalera.

Horren inguruan, ezin dugu kulturako Agenda 21 aipatzeke utzi, onartu zenetik (2004) hainbat hiri eta tokiko gobernu bildu ditu-eta. Instrumentu horren bitartez, eskubide kulturalen inguruko lana bultzatu da, lan lausoa (lekuan lekukoa) bai, baina baita zabala eta oso gutxi homogenezatua ere. Kulturako Agenda 21 tresnari esker, garapen jasangarriaren dimentsio kulturalari pisua eman zaio eta kultura eskubideak giza eskubideen parte direla berretsi da; gainera, herritarrek kulturaren aktibo izan beharri indarra eman zaio. Lau arlo handitarako ekintzak proposatzen ditu Agenda 21ek.

1. Tokiko gobernuak eskubide kulturalen diskurtsoa bereganatzea.
2. Herritarrek gobernantza kulturean parte hartzea.
3. Estandarrak taxutzea, oinarritzko zerbitzu kulturalak ziurtatzeko.
4. Politika kulturaletan zeharkako helburuak ere txertatzea.

Umeen eskubideak eta eskubide kulturalak: non topo

Aurrez azaldu dugunaren haritik, ikusi dugu badirela espazio batzuk non umeen eskubideak eta eskubide kulturalak topo egiten duten. Atal hau ixteko, hemen topagune horiek zein diren, labur-labur:



- > Izaera kulturala eskuratzea eta kulturako jendartekoa izatea oso garrantzitsua da.
- > Premiazkoa da ekintza artistiko eta kulturalak eskura izatea eta horretan jardutea.
- > Jendeak kulturaren eta kulturaren gobernantzan parte hartu behar du, bizitzako garai guztietan.
- > Espazio publikoa funtsezkoa da kulturako espaziotarako.
- > Agintari publikoek ahalegina egin behar dute eskubide-emaile izateko, eta eskubideok behar bezala garatzen lagundu behar dute.

3_ Umeak ere kulturazale

Kulturako publikoaren segmentutik, zati handia umeak dira. Ezaugarri bereziak ditu zati horrek, jakina. Aurreko orrietan azaldu dugu zein diren umeen bereizgarriak, eta estrategiak prestatzeko dudarik gabe kontuan hartu beharrekoak dira berezitasunok, umeak ere kulturako publiko direla onartu dugunez.

Ikuspegi tradizionalagoaren ildotik, eta umezaroa garapen bio-psiko-sozialaren beste etapa bat dela ulertuta, gehiengoaren ikuspegiak badu interesik umeengan, etorkizuneko publiko izango direlako. Badirudi hori dela etorkizuneko publikorik izango dela ziurtatzeko estrategiarik iraunkorrena, baina horren emaitzak luzera agertzekoak dira eta, gainera, politika/programak ebaluatzeko zailtasunagatik, estrategia horien inpaktuak, arrakastak eta porrotak neurtzea nekeza da.

Balioak eta ohiturak hartzeko garai kritikoa da umezaroa. Umeek kontzientea ez den prozesu batekiko gustuak eta preferentziak sortzeko garaia da. Gerora gustuak alda daitezke, baina marjina oso estua da: umezaroan eta nerabezaroan sortzen dira nagusi, eta luze irauten dute hortik aurrera.

Esate baterako, umezaroko sozializazio kulturalari lotutako aldagaiak (garai horretan egiten diren ekintza kulturalak nolakoak diren eta zer gradutakoak, eta horretarako familiak zer baliabide eskaintzen dituen) oso lagungarri dira ikerlan demoskopikoetan, oso argigarriak direlako helduen kulturazko ohiturak ulertzeko.

Hala, umeei esperientzia kulturalak ematea estrategia errentagarria da, kulturako publikoa sortzeko ahaleginean luzerako emaitzak dakartzana; baina oso zaila da ebaluatzen. Horregatik, literaturak adierazita dauka esperientzia esanguratsuak eskaini behar zaizkiela, barneratzea, luzerako inpaktua, gertatuko bada. Barneratzeko prozesu horren bitartez -inpaktu handi samarra eragiten dienez-, balio jakin batzuetarako joera emango dioten nahi eta sinesmenak integratzen dituzte umeek.

Sozializazioaren alorrean maiz aipatzen dira P. Bourdieu-ren ikerketen erreferentziak: aurreneko sozializazioak bakoitzaren balioen sistema taxutzen du, gerora, nerabezaroan, mamituko dena, eta bizi guztian bakoitzaren garapena markatuko duena. Bakoitzaren balioen sistema horretan zurkaizten da kulturaren balio subjektiboa ere, alegia, bakoitzaren pertzepzioa kulturaren balio intrintseko eta instrumentala nahiz kulturaren parte hartzeko bakoitzak duen motibazio psikologikoa (zer premia ase nahi duen bakoitzak: soziala, emozionalak, kulturalak edo sinbolikoak). Kulturaren balio subjektibo hau da, umetan eta nerabetan eraikitzen dena, gerora ekintza kulturaletako parte-hartze tasak markatuko dituena.

Umezaroan bi bide daude, batik bat, kulturara iristeko, eta biak ere esperientzia kulturalak izateko espazio eta transmisio-engranajeak dira:

- 1. Familia
- 2. Eskola

Hurrengo ataletan, elementu horiek definitzen dituzten alderdi nabarmenenak aztertuko ditugu, esanda bezala, kulturara hurbiltzeko bide ez ezik, kultura transmititzeko engranajeak ere badira-eta.

3.1 Familiatik begiratuta

Sozializatze eta kultura transmititzeko funtsezkoa denez, familia zutabe da, baliabide materialez aparte, baliabide kulturalak eta sinbolikoak ere ematen dituelako. Analitikoki dimentsio ezberdinak badira ere (baliabide materialak eta baliabide sinbolikoak/kulturalak), ebidentzia enpirikoak adierazten du badela korrelazio positiborik maiz: zenbat eta baliabide material gehiago, orduan eta baliabide kultural gehiago, eta alderantziz. Nolanahi, kasu batzuetan badira familiak eta pertsonak kapital ekonomiko handia izan arren kapital kultural eskasa dutenak, eta alderantziz. Gainera, bada aukerarik kapital kulturala hobekuntza materiala pizteko baliagarri den agertoki eta politikak imajinatu eta lantzeko.

Ume ikusleak sortzeko, eta jakinda biztanleriaren segmentu honengan familiak nolako pisua daukan, kontuan hartu beharrekoak dira, inondik ere, norberaren bizia, familia eta lana bateragarri egiteko politikak. Gurasoekiko daukaten premiagatik, umeek zaintza behar dute beti, eta hori bere horretan arazo handia da, denbora asko kentzen duelako; ba are oztopo handiagoak borrokatu behar izaten dituzte familiek denek elkarrekin kulturako zerbait egin nahi badute.

Interesgarria da adieraztea, labor bada ere, Kulturaren Euskal Behatokiko ohitura kulturalen paneletako emaitzek agertu dutenez, seme-alabak izateak baduela eraginik kulturako parte-hartzean: guraso direnek gutxiago hartzen dute parte kulturaren, are gutxiago, kultura sortzen edo aktibo jarduten⁶. Jakina, denbora gutxiago eta baliabide material gutxi izaten dutelako (eta hala zaila da kulturaren jardutea).

Hala eta guztiz ere, kultura-ohiturei buruzko paneleko emaitzek ere adierazi dutenez, kultura maiz kontsumitzen dutenen tipologiaren barruan bada segmentu txiki bat zeinetan familia asko jarduten den kulturaren, konbinatuz, batetik, helduentzako kontsumo berezia, eta, bestetik, umeentzako bereziki prestatutako eskaintza, adibidez, zirkoa, umeen antzerkia eta magia⁷. Hala, bada, ikusten da umeentzako eskaintza espezifiko oso erakargarria izan daitekeela kultura-ohitura berriak sortzeko seme-alabak dituzten familietan. Kultura-jardunak, jokoak eta jolasa, adibidez -haurren eskubideen adierazpenak berak ere esanda duenez- oso lagungarri dira umeen garapen bio-psiko-soziala lantzeko; hori dela-eta, bidea ematen dute biztanleriaren segmentu horretara iristeko.

Baina egokiak izan behar dute ez bakarrik kultura-produktuaren ikuspegitik, baizik baita kontsumorako baldintzen ikuspegitik ere. Kontua da bateragarritasuna ikuspegi zabaletik hartuta bideratu behar dela: ekintzen ordutegiak egokitu, eta espazio nahiz bertako zerbitzu eta baliabideen ezaugarriak ere moldatu, zaintza-lana ez ezik familiako kultura-jarduna burutzeko moduan egon daitezkeen gurasoak. Labor esanda, lana bateragarri egiteko politikak dauden bezalaxe, kultura-jarduna bateragarri egiteko politikak ere taxutu behar lirateke. Begi-bistakoa da: kultura-jarduna errazteko neurrietan, ordaindutako lana eta familiako zaintzak lehentasun erabatekoa dutela ulertzea da, ezinbestean, abiapuntua. Nolanahi ere, abiapuntu horrek ez du zertan oztopo izan moldaketa horiek egiteko eta familiei kulturara hurbiltzeko aukera gehiago emateko.

Azkenik, ikuspegi biologikotik, garrantzitsua da nabarmentzea dagoeneko Umeak babesteko Gipuzkoako sistemaren txosten batek ("Ebidentzian oinarritutako programen zorroa") esanda daukana, hauxe⁸:

6. Begiratu 3. aldiko datuen azterketa-txostenaren 10. grafikoa, honako estekan: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_kultur_ohitura_panel2017_3/eu_def/adjuntos/kultura_ohiturak_panela_emaitza_txostena_3_2017.pdf

7. Begiratu 2. aldiko datuen azterketa-txostenaren 20. grafikoa, honako estekan: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_kultur_ohitura_panel2017_2/eu_def/adjuntos/kultura_ohiturak_panela_emaitza_txostena_2_2017.pdf

8. Esteka honetan dago txostena: <https://www.gipuzkoa.eus/documents/1932270/1932598/Sistema+de+protecci%C3%B3n+infantil+en+Gipuzkoa.+Propuesta+para+una+Cartera+de+Programas+basados+en+la+evidencia.pdf/cc06b90-9c8a-af5b-1839-9c09d06f8f3a>

- 0-3 urte bitarteko aldi horretan garatzen da gehien garuna (% 55).
- Aurreneko 22 hilabeteetan lortzen den garapena 26 urterekin irits daitezkeen hezkuntza-lorpenen aurreikuspen fidagarria izan daiteke.

Horrek are gehiago nabarmentzen du haurtzaroak zenbaterainoko garrantzia daukan, eta zenbateraino marka dezakeen etorkizuna. Horregatik, txostenak berak ere esaten duenez, garaiz esku hartzea funtsezkoa da edozein motatako adierazleak (kasu honetan, kulturalak) hobetzeko asmorik badugu. Datuok egundoko garrantzia aitortzen diote familiari aurreneko urteetan, botere publikoak aurrerago hasten direlako umeen ardura hartzen.

3.2 Eskolatik begiratuta

Sozializazio-eragiletzat familiak betetzen duen paperaz gain, badira paper hori betetzen duten bestelako hezkuntza-erakunde ofizial batzuk ere. Horregatik dauka hezkuntzak halako garrantzia neska-mutilek kulturari buruz sortzen duten balorazio subjektiboan. Haur-hezkuntza nahiz lehen hezkuntza dira umeen kasuan eragingarrienak. Haur-hezkuntzan bi ziklo daude: lehena, 0-3 urte bitarteko haurrentzat eta bigarrena, 3-6 urte bitarteko umeentzat. Lehen ere esan dugunez, garunaren garapenean oinarri-oinarrizko garaia da hori, oinarritzko gaitasunak hartzen diren garaia. Hala eta guztiz ere, garai horretan hezkuntza ez da derrigorrezko eta doakoa, bai, ordea, 6-12 urte bitarteko oinarritzko hezkuntzako garaian (lehen hezkuntzako zikloan) eta 16 urte arteko hezkuntzako garaian (bigarren hezkuntzako zikloan).

Oinarritzko hezkuntzako etapa guztian, ume eta nerabeak ikusle bihurtzeko edozein estrategiatan, ezinbestekoa da kultura eskolara hurbiltzea. Estrategia horietan honako urratsak lantzen dira nagusiki:

- 1. Eskolako curriculumean praktika artistikoak ere sartzea (adibidez, musika edo arte plastikoak).
- 2. Arteekin lotutako eskolaz kanpoko ekintzak antolatzea.
- 3. Txango kulturalak antolatzea (museotara, antzokietara, ondarea ikustera...).
- 4. Lehen eta bigarren hezkuntzako plan orokorrak taxutzea (irakurri eta idaztearekin lotutakoak, ikus-entzunezkoekin lotutakoak...)
- 5. Kultura edo artearen arloko erakundeek bereziki eskolarako prestatutako programak mamitzea, bakoitzak bere esparruan lantzekoak, artea eta kultura proiektuen bidez lantzeko eskolan, eta ez ikasgai bezala⁹.
- 6. Eskoletako liburutegiak dinamizatzea.
- 7. Laguntza eman eta lankidetzan jardutea aurreko puntuetan adierazitako ildoetako estrategikoak lantzeko proiektu pedagogiko berritzaileak (eskolaz kanpoko ekintzak, artea eskolan txertatzeko kultura-erakundeak lantzen dituzten proiektu espezifikokoak...) garatzen dituzten ikastetxeekin, direla publikoak, pribatuak edo itunduak.

Bestelako dimentsio batean, gogoan izan behar dugu beti oinarritzko bigarren hezkuntzako etapa ere garrantzitsua dela umezarotik nerabazarora iristeko aurrerabide horretan.

Nerabezaroan, aurrekoek gain, bada beste sozializatzaile bat kontuan hartu beharrekoa, asko ematen diolako kultura esanahi subjektiboz jantziko duen balioen sistemari: bakoitzaren berdin-kideen taldea da, askotan eskolan bertan sortua. Eskolan sortutakoa izanagatik, indar sozializatzaile ezberdina dauka.

Nerabezaroan, gerta liteke kideen talde horrek norberaren balio sistema indartzea edo, alderantziz, kolokan jartzea. Alegia, garai horretan, alde batera edo bestera jotzen hasten dira umeak. Horregatik, bidea ireki behar dugu umezaroa eta nerabezaroa elkarrekin lotzeko, ikusle berriak sortzeko garai kritikoa da-eta.

⁹ Alde horretatik, bereziki interesgarriak dira hezkuntza-sistema eta kultura-sistema integratzeko programak. Horren adibide ezin hobea da Bartzelonako Kulturaren Institutuaren EN RESIDÈNCIA programa: horren bitartez, artista bat bigarren hezkuntzako ikastetxe batera joaten da, ikasleekin batera obra bat sortzeko bertan. Hemen informazio gehiago: <http://www.enresidencia.org/es>

3.3 Labur esanda

Gogoeta horiek ikuspegia zabaldu digute, eta espazioak zehaztu dizkigute estrategia jakinak garatzeko umeak ikusle-izangai baino gehiago direla ulertuta jokatzeko, erakunde kulturalak baino harago joanda; aintzat hartuta bai familia, bai hezkuntza-erakundeak bai eta espazio publikoa ere. Umeak etorkizuneko ikusletzat jotzen dituen ikuspegia oso lotua dago neska-mutilak garatzen ari diren pertsonatzat/hiritartzat jotzen dituen ikuspegi tradizionalarekin, baina beste ikuspegi bat ere landu dezakegu, eta umeak eragile aktibotzat jo, neska-mutilak gaitasun erabatekoa duten ikusletzat hartu, ez egiteke dauden pertsonatzat.

Horrez gain, kontuan hartu behar dugu neska-mutilak ezberdin bizi direla hainbat faktore sozialen arabera, baita, besteak beste, familiaren arabera ere. Horrek ezinbestean gogora ekartzen dizkigu pobrezia eta gizartetik baztertuta egoteak kulturako parte-hartzerako eragiten dituzten baldintzatzaileak, 22. atalean azaldutakoak, eta horiek gogoan izanda hainbat oztopo etorriko zaizkigu begi-bistara:

- Ekonomikoak (zailtasun materialak)
- Geografikoak (ekipamenduak eta zerbitzuak ez daude leku guztietan berdin zabaldua)
- Psikologikoak (parte-hartze kulturalaren arloarekiko distantzia sinbolikoa)

2. atalean eginiko lan kontzeptuala kontuan hartuta, 3 estrategia ere identifika ditzakegu umezaroan lan eginez, kulturako ikusleak sortzeko:

- 1. Umeak egiteko dauden eragile kulturaltzat hartzen dituzten estrategiak: etorkizuneko ikusleak prestatu
- 2. Umeak gaur egungo eragile kultural aktibotzat hartzen dituzten estrategiak: ikusle eta sortzaile izateko gaitasuna landu
- 3. Familiaren arabera dauden “umezaro” desberdinei erantzuna emateko estrategiak: denek aukera berdinak izan

Gainera, estrategia horiek era desberdinetan aplika dakizkieke ume ikusleei, espazioaren arabera:

- 1. Familia
- 2. Eskola
- 3. Umea bera, subjektu aktibo izanda (eta, nerabezaroan, kideak ere parez pare)

4 Kasuak aztertzea: Umeen eta kulturaren inguruko estrategiak

Gaur egun abian diren estrategietan, nola programa zehatzetan hala langintza orokorretan, oinarritutako ekintza-gakoak eskaintzeko asmotan, honako gai hauek aztertu eta landuko ditugu atal honetan:

1. Zer posizio daukan kulturak umeen inguruko planetan, batez ere, 2018-2022 epean Euskadiko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV Planean.
1. Umeen inguruko zer estrategia lantzen dituen kulturaren sektoreak, 2004-2015 eperako Euskadiko Kultura Plana aztertuz eta langintza orokorren inguruan gogoetan jardunez.

4.1 Kulturaren posizioa umeen inguruko planetan

2018-2022 epean Euskadiko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV Plana Familien eta Haurren aldeko Euskal Itunak mamitu duen emaitza da. Gure azterketaren erreferentzia nagusia ere bada, hortaz.

Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Euskadiko Udalen Elkarteak-Eudelek- sinatu zuten ituna. Herritarrei familiak sortzen laguntzeko aukerak ematea du egitekoa, batik bat, eta zenbat ume eduki nahi dituzten erabakita dutenean, erabaki hori aldarazteko ahalmena duten baldintzak ezabatzea.

Oinarritik, umezaroa eta kultura lantzeko tarte gutxi lagatzen duen kezka baten inguruan dabil plana. Ume gehiago jaiotzea duenez helburu, familiak sortu eta iraunarazten hartzen du ardura batez ere (gazteak beren gisa bizitzera joatea, lana bateragarri egitea, etxeko lanetan ardurak berdin banatzea, eta familiei laguntza ematea), eta umei ez die erreparatzen hainbeste. Hala eta guztiz ere, planaren ardatzetako bat "Haurren eta nerabeen ongizatea sustatzea" da. Ardatz horretako 8 helburuetatik 2 bereziki nabarmenak dira guretzat, umeen eta kulturaren arteko bidegurutzean kokatuta daudelako:

„Haurren parte-hartzea eta haurren eskubideen sustapena. Haurrek eta nerabeek beren ongizateari buruzko erabakietan parte har dezaten bultzatzea.

„Komunitatearen garapena. Zerbitzu soziokulturalen eta gizarte- eta hezkuntza zerbitzuen garapena sustatzea, eta haur eta gazteei eta, bereziki, egoera okerragoan daudenei, aisiaz, kirolaz eta kulturaz gozatzeko erraztasunak ematea.

Ekintzen artean, 8 besterik ez dira kultura eta haurtzarora lantzekoak. Erreferentzia lausoak dira. Hots, ez dira alor horretako eta kulturako eragile eta zerbitzuen inguruko neurri espezifikoak, baizik eta kulturak eta, zehazki, kultura-sailak presentzia izan behar luketen proiektu eta ekimenak. 2. eranskinean ikus daitezke. Batez ere nabarmentzekoa da 91. neurria. Honakoa dio:

„Hezkuntzatik sormen- eta kultura-garapena sustatzera bideratutako jarduerak bultzatzea eta haurrak publiko estrategikotzat har daitezen bultzatzea”.

Ildo horretatik, 9 neurri proposatzen ditu plana ume-ikusleek gehiago parte har dezaten kultura jasotzen eta sortzen hainbat alorretan (zinea, dantza, irakurketa eta literatura sortzea), eta haietzako eskaintza hobea izan dadin, festibalei lagunduta batez ere.

Gainontzeko neurriek orokorrean bultzatzen dituzte umeentzako programak (kulturak hor izan dezake kokalekua), edo Familia eta Haurrentzako Lurraldeko Kontseiluetako edo familia, ume eta nerabeentzako plan eta mahaietako agenteekin dute lotura (eta agente horiek, Haurren Eskubideen Konbentzioaren eta Friburgoko Adierazpenaren ildotik, umeentzako eta kulturarako neurriak hemen azaldu bezala taxutu behar lukete lana).

Tokiko ekintzei dagokienez, aipatzekoa da gure hiriburuek badutela umeentzako plan bana. Zehatzago esateko, neurri bereziki interesgarriak dituztela iruditzen zaigu bai Gasteizen (Ume eta Nerabeentzako 2018-2020 II Tokiko Plana) bai Bilbon

(Ume eta Nerabeentzako 2018-2020 Udal Plana). Gasteizen, are gehiago, kultura-zerbitzua tartean sartzten duten neurriak ere badituzte; horietako 1ean zerbitzua arduradun izanda, eta beste 4tan kolaboratzaile izanda. Bilbon, kulturaren arloari lotutako 2 ildo estrategiko nabarmentzen dira: bata euskara sustatzeari buruzkoa eta bestea umeak eta nerabeak kulturaren parte har dezaten bultzatzekoa.

Umeen inguruko planetan (dela familia eta umeak, dela umeak eta nerabeak...) kultura sartzeko, 2 ildotatik jo behar da:

1. Kulturaren alorrak eta administrazioak garatu beharreko neurri espezifikoak landu.
2. Arrisku sozialak eta gizartetik baztertuta geratzeak eragiten dituzten kalteak arintzeko neurriak landu, hala nola seme-alaba bakoitzagatik prestazioak ematea, kontziliazio-politikak lantzea, politika sozial eta fiskal egokiagoa sortzea...

4.2 Kulturatik umeentzako lantzen diren estrategiak gaur egun

Kulturaren Euskal Planak (2004) hurrengo urteetara begira jarri zituen helburuak, eta 2015. urtea du muga. 8 ardatz estrategiko ditu eta hainbat ekintza, baina horietatik 3 besterik ez daude umei begira prestatuta. Baina, halere, ezin zaio ukatu alor oso garrantzitsuak lantzen dituela:

1. Lehenik eta behin, eskola, artea sustatzeko asmoa baitu, bai eta ondarearekiko zein arteekiko sentipena izateko eskola-programak.
2. Bigarrenik, ume eta gazteei bereziki taxututako eskaintzak sortzea, nahiz ekintza honetan euskara ere sartzten duten.

Nolanahi, alor horiek oso garrantzitsuak izanagatik ere, ikusita aurreko ataletan esanda bezala hainbat eta hainbat ildo daudela lantzeko, begi-bistakoa da bi horiek besterik ez izanda, eskaintzen duena ez dela nahikoa.

Kulturatik, fokua, alde batetik, **programazioko irizpideak** sortzera eta bereiztera jarria dago (gaur egungo nahiz etorkizuneko ikusleentzat) eta, beste alde batetik, **ume eta familientzako zerbitzu espezifikoak** sortzera edo egokitzera.

Bigarren alde horretarako estrategia gutxiago lantzen direnez, badago hor zer egin. Umeentzako eta familientzako eskaintza bereziak eskaintzen dituzten programazio-irizpideak aplikatzeaz gain, funtsezkoa da kulturako ekipamenduei nahiz festibaletako ekintza espezifikoei bultzada ematea. Alegia, bai haientzako pentsatutako ekintzei laguntzea bai familiei erraztasunak ematea, ordutegiak, lekuak eta prezioak egokitzuz, beharrezkoa bada. Kulturako ekipamendu eta ekitaldietan umeentzako espazio egokiak eta seguruak sortuz gero, familia gehiagok izango du interesa leku horietara joateko, jakina baita umeek premia bereziak dituztela eta familiak kontu egitea behar dutela. Gainera, baliteke leku horiek, egokiak izanez gero, sormen kulturala eta artistikoa bideratzea.

Kulturaren Europako Agendak adituen lan-talde bati agindutako txostenak (*“A report on policies and good practices in the public arts and in cultural institutions to promote better access to and wider participation in culture”*)¹⁰ bere garaian adierazi zuenez, ume nahiz nerabeentzako prestatutako ekintza edukatiboak dira kulturak hainbat herrialdeetan darabiltzan estrategia nagusiak, kulturarekiko interesa edo eskari globala sortzeko. Heldutan ez bezala, umetan eskola bitartekari klabea da; helduekin lan egitea zailagoa da, hain zuzen ere, bitartekaririk ez dagoelako.

Hezkuntza-sailekin eta ikastetxeekin lankidetzan jardutea oinarri-oinarrizkoa da. Kasu honetan, zehazki orientatutako programak landu behar lirateke, gogoan hartuta kulturarako ikusleak prestatu nahi direla eta, bide batez, umei beren alderdi bio-psiko-sozialak garatzen lagundu. Hezkuntzaren eta kulturaren arteko erlazio honetan, **eskolaz barruko zein kanpoko estrategiak** nabarmentzen dira:

— Eskolan bertan garrantzitsua da arteak eta kultura hezkuntzako curriculum-ean txertatzea, sistematikoki eta horretarako egoki diren profesionalekin lanean jardunik. Gogoan izan behar da, lehen hezkuntzako (haurren) curriculum-a malguagoa bada ere, merezi duela bigarren hezkuntzan (nerabeekin) ere ahalegina egitea. Horregatik, estrategia bitakoa izan daiteke, alde batetik hezkuntza-plan orokorrak, artea eta kultura ere lantzen dutenak, eta bestalde, arte eta kulturako hezkuntza-plan espezifikoak eskoletarako. Eskolak egiten duen lanak familiekin harremana izan eta haien inplikazioa lortzerik ere badu, estrategia hauen inpaktua handituz hartara.

— Eskolatik kanpo, ikastetxeentzako interesgarri diren programak eduki behar dituzte kulturako erakundeek, kooperazioa errazteko modukoak, eta are zabalago eta bereziago, eskolara joateko garaian diren ikusleentzako programak. Familiei laguntzeko erakunde arteko IV. Planak (2018-2020) -2. Eranskinean kontsultatu daiteke- alor horretan abian jarritako ekimenak nabarmendu ditu. Bereziki 91. neurria nabarmendu du (umeak kultura-publiko estrategikoa dela aldarrikatzen duena), zehazki aipatuz ekimen jakin batzuk: Zinema Euskaraz, Zinetxiki, Durangoko Azoka, Euskadiko Gazte Orkestra Tinko, ABAO Txiki, Biargi Sarea... , lanean hasteko aukera ezin hobea erakundeetatik. Horrez gain, ikuspegi orokorretik behatuta, museo eta liburutegien ekimenak eta musika-eskolak nabarmendu behar lirateke, eta arte eszenikoetan apurka gero eta gehiago egiten dela ahalegina.

> Museoen kasuan, bide luzea daukate egin dagoeneko programa pedagogikoei. Adibidez, Guggenheimek, Bilboko Arte Ederren Museoak, Artiumek edo San Telmo museoek publiko espezifikoetarako hezkuntza-ekintzen aukera zabala eskaintzen dute, besteak beste, umeentzako, familientzako eta irakasleentzako.

¹⁰ Txostenak, orokorrean, Europar kultura eskuratzen laguntzeko egiten diren ekintza baliagarriak deskribatzen ditu. Hemen duzue: http://ec.europa.eu/culture/policy/strategic-framework/documents/omc-report-access-to-culture_en.pdf

- > Liburutegiak ere kultura eskuratzeko bitartekoak dira gero eta maizago; dagoeneko ez dira liburuak kontsultatzeko eta maileguan hartzeko lekuak soilik. Hala eta guztiz ere, irakurketari dagokionez, umeentzako eta gazteentzako irakurtzeko aukera espezifiko eskasa da.
- > Musika-eskolak umeentzako eta nerabeentzako dira zehazki, eta ondo errotuta daude herrietan.
- > Arte eszenikoei dagokienez, umeentzako eta familientzako programazio-irizpideak txertatzea estandarra bihurtu da dagoeneko, eta, kasu batzuetan, publiko horretarako lan egiten dute bereziki, adibidez, Teatro Paraiso-k edo Marie de Jongh-en konpainiak (biak ere Ume eta Gazteentzako Arte Eszenikoen Sari Nazionala jasotakoak).

Museoen kasuan bereziki nabarmena da eskolekin egiten duten elkarlana, baina denentzat ere interesgarria da. Hezkuntza-lanaren ikuspegitik, ulertu behar dugu kulturak eta arteak badutela eraginik gure garapen kognitibo eta emozionalean, eta hiritar izateko era aktiboaren abiapuntua ere badirela. Lagungarri izan litezke, adibidez, kontzentrazioa (musikaren bitartez), pentsamendu sinbolikoa (irakurketaren bidez) edo sormena (antzerkiaren eta marrazkiaren bidez) lantzeko, eta pentsamendu kritikoa, norik bere burua eraikitze gaitasuna eta besteena ere ikusteko enpatia ematen dituzte. Prozesu horretan umeek hartuko dituzten esperientziak, ondo landuz gero, baliteke bakoitzaren balioen egitura eraikitze lagungarri izatea, baita bakoitzak bere barruan kulturari aintza emateko ere.

Horrexegatik da hain garrantzitsua esparru pedagogikoan umeen eta arte nahiz kulturaren arteko erlazioa bideratzen duten **profesionalen lana**. Profesionalen **prestakuntzak**, lehen ere esan dugu, umeek hezkuntzaren bidez jasotzen dituzten esperientzia kulturalen gaineko lana sistematizatzeko lagungarri izan behar du, esperientzia horiek tartekako denbora-pasa hutsa baino gehixeago izan daitezten. Txikitandik kulturarekiko egarria sortzeko, gaitasunak eta jakintza eman behar zaizkie umei, bai eta ekintza horiekiko gustua erakusteko esperientzia pizgarri eta gustagarriak ere. Bai umei bai kulturari halako lanetan arituta dauden profesionalak eskaini behar zaizkie, eta horretarako arlo horretako lana sistematizatzeko beharrezko inbertsioak egin egin behar dira, ez dadin dena irakasleen edo eskoletako agintarien borondatearen men egon.

Gainera, lan honetan azaldutako kontzeptu-ildoaren haritik, esperientzia horiek kalitate onekoak izan behar dute, ez daitezke izan heldu adiñaren ikuspegia umeari pasatze soil, helduak bitartekari lana egin behar du, bai, baina bi norabideetan doan erlazioa sortu ere bai. Zailagoa izan baliteke ere, 0-3 bitarteko etapan esku-hartzea ezinbestekoa da, nahiz etapa guztietan egon beharko dugun gainean, baita nerabezaroan ere.

Azkenik, ezin gogotik kendu kulturak eta umezaroak topo egiten duten horretan **bitarteko digitalek** toki nabarmena daukatela, edo eduki behar dutela. Bitarteko analogikoak bezainbeste digitalak integratzen dituen inguruan bizi eta hazten dira gaur egungo belaunaldiak. Aldaketa digitalek kultura eskuratzeko modua aldatu badute ere, askotan produktua ez da aldatzen, bera da. Hala, inportantea da ikustea bitarteko digitalak ere audientzia konektatu eta lotzeko estrategia berriak taxutzeko aukera direla, eta produktu berriak sortzeko ere balio dutela. Zehazki esanda, umeen eta gazteen kasuan, esperientzia kulturalak gamaka jarrita, aurrerabide teknologikoak integratzeko ahalegina egin da, hartara edukiarekin jarduteko moduan.

5_ Umeak eta kultura: nondik ekin

Txostenak umeen eta kulturaren arteko erlazioaren ezaugarri espezifikoak detektatu ditu, eta, horren arabera, ekintzarako ildo batzuk markatu dizkigu.

Lehenik eta behin, zer-nolako estrategikoak dauden aztertu behar da eta estrategia horietako bakoitzak zer publikotara jotzen duen. Honako taula honetan daude laburtuta:

		Familia	Eskolakoak	Umeak
Estrategiak honetarako:	Umeak etorkizuneko publiko	A1	B1	C1
	Umeak gaur egungo publiko	A2	B2	C2
	Era askotako umeak	A3	B3	C3

Etorkizuneko publikoa (A1 – B1 – C1): umeak kulturaz ondo hornitutako inguruan sozializatzea funtsezkoa da, handitan kulturaren parte hartuko duela ziurtatzerik egongo bada. Familia da sozializatzaile lehena etapa honetan, ume-umetan batez ere, baina adinean aurrera egin ahala, eskolak ere hartzen du garrantzia horretan. Prestatzen ari den publikoa direnez umeak, ekintza horietan abileziak eta jakintza eman behar zaie batez ere; kulturaz gozatzea gero etorriko da. Lan hori egin behar bada ere, esperientziak gustukoa izan behar du nolana, kontua da azentua non jarri, bitartekoetan ala helburuetan. Ekintzetan familiakoak edo eskolakoak (irakasleren bat) izango dituzte lagun, edo zuzenean umearekin egin daiteke lan, beste inor gabe.

Gaur egungo publikoa (A2 – B2 – C2): ñabardura hori sartu behar da kultura eta artea disfrutatzen beharrezko abilitate eta jakinduria sortu eta transmititzeko ekintzetan, alegia, umeak pozik eta gustura egoteko helburuz egin behar dira ekintzok. Ildo horretatik, kalitate oneko eskaintza eman behar dugu, umeen eta familien ikuspegi aintzat hartuta beti.

Era askotako umeak (A3 – B3 – C3): ume denak ez direnez berdinak, kulturak ere bidea aurkitu behar du, jakina denez beste esparru batzuetan daudela erreminta aproposak aniztasuna lantzeko (lanaren kontziliazioa, kalitate oneko enplegua, diru-sarrerak ziurtatuta edukitzea, inguru seguruak...). Hala eta guztiz ere, kulturak badu familia behartsuenei pizgarri espezifikoak ematerik, oztopokoak kentzeko besterik ez bada ere; direla oztopo ekonomikoak direla fisiko edo psikologikoak. Ikastetxeetan, are gehiago, abagune ezin hobea daukagu denek aukera berdinak izango dituztela ziurtatzeko. Era guztietako egoerak daudelako ikastetxeetan. Denek aukera berdinak dituztelako ikastetxeetan. Nolanahi, kultura eskuratzeko ez ezik, ondo aprobeztatzeko aukera ere eman behar du eskolak, eta baliteke horretarako estrategia zehatzak behar izatea, ume bakoitzaren eta bere premien arabera.

Kontu horiez gain, lanerako zer bitarteko erabil daitezkeen ere aipatzen dute azalpen horretan.

- **Inbertsioko konpromisoak** hartzea, umeen eskubideen alderdi kulturala garatzeko.
- **Eragiketa eta adierazle estatistikoak** garatzea, umeek kulturaren nola parte hartzen duten ikusteko, eta parte hartze horren faktore ezaugarriak zein diren jakiteko.
- Ume eta familientzako zerbitzu nahiz programetarako **estandar espezifikoak** sortzea, umeen eskubideetan inspiratuak, familiengan, eskolan eta kultura-erakundeetan eragiteko asmoz, umeak subjektu aktibotzat hartuta.
- Beste esparru batzuekin koordinazioan jardutea, **zeharkako estrategia** eratzeke (adibidez, 2018-202 eperako Euskadiko Familiei Laguntzeko Erakundearteko IV Planaren bitartez, eta ume eta gazteentzako tokiko mahaien bitartez), argi ulertuta zer-nolako intzidentzia duten arrisku sozialak eragiten dituzten faktore sozialek, nahiz sarritan bestelako politiken bidez kasu egiten zaien (politika soziala, lanekoa, fiskala...).

- Umeekin kultura lantzen jardungo diren **profesionalak prestatzea**, bai eskolan bai erakunde kulturalen ere.
- Organizazio, ekipamendu eta tokiko gobernuetarako **baliabideak diseinatzea**, umei kulturarako bidea errazteko (parte-hartzea) prestatzen ari den publiko gisa nahiz subjektu kultural aktibo gisa (enfasi berezia eginez, baliabide kultural digitaletan).

Hala bada, eskubide kulturalen eta umeen eskubideetan inspiratutako umeentzako politika kulturalak ezaugarri hauek bete behar lituzke:

- Umeentzako artea eta kultura sustatzeko **organo propioa** eduki behar luke.
- Artearen eta kulturalen ikasketei pisu handiagoa eman behar lieke **hezkuntza-curriculum** orokorrean.
- Ume eta gazteen **gaitasun kulturelek** hobera egitea lortu behar luke.
- Umeen eta kulturaren arloan jarduten diren **irakasle eta profesionalen prestakuntza** hobetu behar luke.
- Umeek eta nerabeek kultura eskuratzeko **ekitate-irizpideak** izan behar lituzkete, planifikazio politiko eta estrategikoetan.
- **Aukera gehiago** eman behar lituzke, umeek kulturaren parte hartzeko oztopoak eraisteko.
- Ume eta familia ikusleentzako **espazio egokiak** sortu behar lituzke, ekipamenduak ez ezik, espazio publikoak eta kanpoko lekuak ere kontuan hartuta.
- Kulturaren gobernantzan umeek **parte hartzeko hainbat modu** taxutu behar lituzke.
- Kultura administrazioak bestelako administrazio publikoekin **elkarlanean** jardun dezan ahalegina egin behar luke, ikuspegi koordinatuarekin lan egingo dutela ziurtatzeko.

Eranskina

1. eranskina _2004-2015 eperako Kulturaren Euskal Planetik, umeengan ardaztutako neurriak

2. eranskina _2018-2022 eperako Euskadiko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV Planetik, kulturarekin zerikusia daukaten neurriak

3. eranskina _Gasteizko eta Bilboko umeen inguruko planetatik, kulturarekin eta umeekin lotuta dauden neurriak

1. eranskina _2004-2015 eperako Kulturaren Euskal Planetik, umeengan ardaztutako neurriak

— Eskolek, herri eta auzoek kantatutako musika sustatzeko egiten duten ahaleginari laguntzeko toki-erakundeetatik eta lurralde-erakundeetatik bultzatzen dituzten ekimenei laguntza eman, bai eta musika-instrumentuak, arte eszenikoetako zein ikusizkoetako praktikak edo eskulanak bultzatzeko ekimenei ere.

— Ondarera eta arteetara hurbiltzen hasi eta sentsibilizazioa bultzatzeko programak eta ekintzak antolatu eskolan.

— Euskarazko produktu eta zerbitzu gehiago sortu, eta eskaintza ere zabaltu, batez ere umei eta gazteei begira.

2. eranskina _2018-2022 eperako Euskadiko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV Planetik, kulturarekin zerikusia daukaten neurriak

45_ Hurrek eta nerabeek beste belaunaldi batzuetako jendearen bizi-esperientzien berri izan dezaten sustatzea
Kulturaren eta memoriaren kontzeptuak uztartuko dituzten haurrentzako eta nerabeentzako jarduerak sustatzea. Horien bitartez, parte-hartzaileek beste belaunaldi batzuetako senitartekoen eta, bereziki, beren aiton-amonen esperientziak eta bizi-ibilbideak kontatuko dituzte.

88_ Hirugarren sektoreko erakundeek garatutako haur eta nerabeekin eta/edo familiekin esku-hartzeko proiektu berritzaileen baterako.

Euskal Autonomia Erkidegoan esku-hartze sozialaren esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak indartzea, jardun-esparru hauetara zuzendutako proiektu pilotu berritzaileen gauzatzea eta ebaluazioa elkarrekin finantzatzeko:

— Familia-kontziliazioko zerbitzu eta eredu berritzaileak.

— Belaunaldien arteko programak.

— Kalteberatasun sozialeko arriskuan dauden nerabeei eta haien familiei zuzendutako prebentzio- eta arreta-programak.



- Gurasotasun positiboko programak (guraso-trebetasunen garapena eta gurasotasun positiborako prestakuntza).
- Haur eta nerabeekin esku hartzea aisiaren esparruan, kirolean, kulturean, ohitura osasungarrien sustapenean eta aisia eta astialdiko jarduerak egiten.
- Haurren parte-hartzea eta haurren eskubideak sustatzen dituzten programak.
- Haurren aurkako indarkeriaren inguruan sentsibilizatzeko, prebenitzeko eta esku hartzeko programak.

91_ Hezkuntzatik sormen- eta kultura-garapena sustatzera bideratutako jarduerak bultzatzea eta haurrak publiko estrategikotzat har daitezen bultzatzea.

Programa hauek indartzea:

- Haur eta gazteentzako literatura-sorkuntzarako laguntzak.
- Haurrek euskarazko zinema ikusteko aukera izan dezaten sustatzea, eskaintza sustatuta (*Zinema Euskaraz*).
- Ikasleak zinemaren sektorearekin sentsibilizatzea (*Tinko*).
- Haur eta gazteei zuzendutako literatura-sorkuntzaren balioa nabarmentzea (Euskadi Literatura sariak).
- Umei eta eskoletako publikoari zuzendutako festibalek sustatutako ekintzei sostengua ematea (Durangoko Azoka – ikaslearen eguna; Zinetxiki...).
- Ume eta nerabeei bereziki zuzendutako antzerki-adierazpenei sostengua ematea: Tolosako Ekinbide Etxea (TEE), Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa, Haur eta Gazteentzako Arte Eszenikoen Euskal Sarea (Biargi Sarea), kaleko antzerki jaialdiak, Gasteizko Nazioarteko Magia Jaialdia – Magialdia eta abar.
- Ume eta nerabeei bereziki zuzendutako musika-adierazpenei sostengua ematea (ABAO Txiki, Euskadiko Gazte Orkestra, eta abar).
- Ume eta nerabeen artean dantza sustatzeko jarduerak bultzatzea.
- Ikastetxeetan ume eta nerabeen irakurzaletasuna sustatzeko aholkularitza-programa garatzea

92_ Ume eta nerabeei euskara transmititzera bideratutako jarduerak bultzatzea

Jardun-ildo hauek bultzatzea:

- Nerabeen hizkuntza-ohiturak azpimarratzeko udalekuak.
- Euskara sustatzeko sentsibilizazio-kanpaina (Bihotzetik ezpainetara).
- Euskararen familia-transmisioa sustatzeko diru-laguntzak.

94_ Landa-eremuetan kirol- eta kultura-ekipamenduen eraikuntza eta/edo egokitzapena bultzatzea

Landa-eremuetan kirol- eta kultura-ekipamenduen eraikuntza eta/edo egokitzapena bultzatzea, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzaren kirol- eta kultura-ekipamenduak eraikitze eta berregokitzeko diru-laguntzen ildoen bitartez.

95_ Landa-ingurunea kirol- eta kultura-jardueren bidez dinamizatzea zuzendutako diru-laguntzen ildo sortzea

Landa-ingurunea kultura- eta kirol-arloko jarduera eta/edo ekitaldien bitartez dinamizatze laguntza-ildo espezifikoak sortzea.

108_ Familia eta haurren arloko lurralde kontseiluen funtzionamendua bultzatzea

Familia eta haurren arloko lurralde-kontseiluen funtzionamendua eta/edo sorrera bultzatzea, eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Osasun Sailaren, Hezkuntza Sailaren, foru-aldundien eta udalen parte-hartzea bultzatzea. Kontseilu horiek funtzio hauek izango dituzte, besteak beste:

- Familia, haur eta nerabeei zuzendutako gizarte-, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuen plangintza koordinatua.
- Familia, haur eta nerabeen esparruko premien baterako detekzioa.
- Haur eta nerabeekin erlazionatutako gizarte- eta hezkuntza-premiak, premia soziosanitarioak edo hezkuntza- eta osasun-premiak estaltzen esku hartzeko programa espezifikoak elkarrekin diseinatu, finantzatu eta/edo kudeatzea.

109_ Familia, haur eta nerabeen arloko tokiko plan eta mahaiak landu eta abian jar daitezzen bultzatzea

Haur eta nerabeen arloko tokiko plan eta mahaien garapena bultzatzea, haur eta nerabeen esparruan tokiko mailan esku hartzen duten eragile publiko eta pribatuak (gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, ikastetxeak, kultura- eta kirol-arloko elkarteak eta ekipamenduak, astialdiko taldeak, eta abar)

koordinatzeko organo iraunkorrak sortzeko eta haur eta nerabeentzako zerbitzuak tokiko eskalan elkarrekin planifikatzeko.

Bereziki, jarduera hauek egitea sustatuko da:

- _ Haur eta nerabeen arloko tokiko mahaiak sortzea eta dinamizatzea.
- _ Haur eta nerabeen arloko tokiko planak diseinatzea eta gauzatzea.
- _ Egiaztatze-programetan parte hartzeko laguntza eta aholkularitza teknikoa (Haurren Lagun diren Hiriak, Haurren Hirien Sarea, eta abar).
- _ Gizarte- eta hezkuntza-izaerako edo izaera soziosanitarioko proiektu espezifikoak tokiko eta/edo eskualdeko mailan egitea.

3. Eranskina _ Gasteizko eta Bilboko umeen inguruko planetatik, kulturarekin eta umeekin lotuta dauden neurriak

Gasteizko 2018-2020 eperako II Ume eta Nerabeen Tokiok Planetik, Kultura Zerbitzua barruan hartuta daukaten ekintzak:

Zbk.	Ardura daukan saila edo zerbitzua KULTURA SAILA	Epeak				
2.1.03	Ume eta nerabeentzako programazioan, inguruko ekipoek lan eginda, nahiz programazio komunitarioan, ume eta nerabeen eskubideen inguruko sentsibilizazioa lantzeko ekintzak bultzatu	2018	2019	2020	2021	2022
Nº	Ekintzetan lankidetzan dabilen saila edo zerbitzua KULTURA SAILA					
1.1.03	Sailen artean batzorde teknikoa sortu, hainbat zerbitzuek antolatutako udal-ekintzen tasa, prezio eta pizgarrien inguruko irizpideak aztertu eta koordinatzeko, ume, nerabe eta familia guztiak aukera berdinak izan ditzaten kulturari jarduteko			2020		
1.1.04	Irizpideak berraztertu, zaillasun sozialak eta arrisku handiagoa duten ume eta nerabeek ere aukera izan dezaten udalak emandako zerbitzuetan besteak bezalaxe parte hartzeko (oporetako aisialdia, haur-eskolak eta abar)		2019			
1.2.01	Sailen artean mahaia sortu, seme-alabak dituzten familiei kontziliaziarako ematen zaizkien laguntzak hobetzeko aldera		2019			
1.3.03	Hiria guraso-lan positiboa egiteko moduko gunea izateko neurriak bultzatu	2018	2019	2020	2021	2022

Bilboko 2018-2020 eperako Ume eta Nerabeen Udal Planetik, kulturarekin eta umeekin lotutako ildo estrategikoak:

6. Umeek eta nerabeek aisialdi, kultura eta kiroltako ekintzetan gehiago parte har dezaten ahalegina egitea, haien gustu eta premien arabera taxututako eskaintza sortuz.

6.1. helburua: Aisialdirako eskaintza plurala, anitza eta erakargarria bultzatu eta bidea erraztu, bakoitzak bere burua garatzeko, buruaski izateko eta balioak sortzeko.

6.2. helburua: Ume guztiak, familia bakoitzeko baliabideak eta bestelako faktoreak alde batera utzita, kultura, aisia eta kirola erabat disfrutatzeke moduko ekintzak eta ekipamenduak burutzea, eta bakoitza barrutik garatzeko kultura-ohiturak eta gaitasunak hartzea.

7. Euskaraz jakitea eta euskararen erabilera sustatu umeen bizitzako eremu guztietan, haien identitate kulturala eraikitzeke lagungarri denez.

7.1. helburua: Euskararen erabilera gehiagotu umeen eta nerabeen bizitzako eremu guztietan.



Umeak ere kulturazale



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA